

# UBI-RAKO FILOSOFI TESTUEN ITZULPENA DELA ETA

Paulo Iztueta

Pedagogiako irakaslea EHUn

Artikulu honetan, UBIRako Filosofi Testuaren zuzenketa-lana zergatik ez den onartzen esan ondoren, aitzakia gisa, itzulpengintzaz hiru puntu harrotzen dira.

Lehenik, itzulpenak beharrezkoak direla edozein hizkuntzatan esaten da areago normalkuntz prozesuan dagoen euskararen kasuan. Alternatiba ez da itzulpenak bai ala ez, baizik eta berezko obren eta itzulpenen arteko oreka osasuntsuari eustea.

Bigarrenik, itzulpengintzan zeintzu erizpide erabili behar diren zehazten da. Lizardik hiru aipatu zituen: zehaztasuna, esaldi-laburtasuna eta zalutasuna. Gaur egun, beste terminologia bat erabiliz, zuzeneko ordezkapen-metodoa eta zeharkakoa bereizten dira eta horietako bakoitzari dagozkion alderdi onak eta ez hain onak. Edozein metodo erabiltzen delarik ere, itzulpengintzak teknika asko eta ondo maneiatzea eskatzen du. Eta ez beti berdinak.

Hirugarrenik, UBIRako filosofi testurako egindako itzulpenez eritzi orokorra ematen da, lan horiek beren jatorrizko idazkera gordinean irakurri eta gero. Ondorioa da, oro har, maila askotako itzulpenak daudela eta ez guztiak maila berekoak. Gutxi dira, aldi berean, idazle on eta itzultzaile trebe direnak.

Ez dakit zergatik nagoen ni hemen, ez bait dagokit ezer esaterik filosofi saileko itzulpen-lan honetaz. Bere garaian Xabier Palacios jaunari oso garbi adierazi nion bezala, ez nuen nire gain hartu proposatu zidan testu itzulien zuzenketa. Eta hori arrazoi askorengatik, baina batez ere hauengatik: a) UZEI aspaldixe utzia nuelako eta bertan neramatzan lanak bertan behera geratuko zirelako; b) une honetan Filosofia ez den beste sail batean ari naizelako, Hezkuntz Soziologian alegia, eta lan espezifiko horretarako azpiegitura egokia falta zitzaidalako; c) horrelako lan batek, aurreko urte askotako esperientziak erakutsi zidanez, askok uste baino denbora eta pazientzia gehiago eskatzen duelako. Hiru arrazoi hauengatik esan nion itzulpen-testuak irakurriko nituela, bai, eta gero nire eritzi orokorra eman, baina ez nituela zuzenduko. Egin dudana horixe izan da, ez gehiago. Hortxe bukatzen da nire partaidetza eta, halaber, erantzunkizuna. Irakurri ditut, eskuratu ez dudan baten bat salbu; beraz, azkenean emango ditudan inpresioak irakurketa soilean oinarritzen dira.

Behin puntu honetara helduz gero, ohar hau egin nahi nuke: paperean zuzentzaile gisa agertzen banaiz ere edo, zuzenago esan, ager erazi banaute ere, nik ez dudala zuzentzaile-zereginik ez neureganatu ez bete. Beraz, zuei iritsi zaizkizuen testuak, itzultzaileak berak itzuli bezala iritsi zaizkizue. Esan behar dizuet ni hona etortzearen arrazoi-etako bat, seguraski nagusia, puntu hauxe argitzea izan dela.

Sarrera gisa argibide hauek emanda gero, euskal itzulpengintzaz, puntu batzu harrotu nahi ditut. Harrotu diot, eta ez sakondu, ez bait dut arazo espezifiko bati buruz mintzatzeko asmorik. Euskal itzulpengintza euskal literaturaren argitan azaltzea da nire asmoa, adieraziz arazo hau ez dela oraingoa, aspaldikoa baizik, nahiz eta gaur egun konnotazio bereziak izan. Eskema hau segituko dut:

1. Euskaigintza zein neurritan den beharrezkoa.
2. Itzulpenak nolako izan behar duen.
3. UBIrako itzulpenez zer pentsatzen dudana.

Hiru puntu hauek aski dira gogoeta labur batzu egiteko, gero segidan elkarren artean eztabaidatuak izan daitezen.

Gauza jakina da itzulpenek leku handia betetzen dutela euskal literaturan, berau orotara hartuta. Koro Nabarrok kuantifikatua du kopuru zehatzetan berezko lanen eta itzulitakoen arteko portzentaia, oker ez banago aldiak ere azpimarratuz. Damuz, ez dut eskuartean haren artikulu hori datu zehatzak eskaintzeko. Biblia itzultzen ari izan dira gehienbat gure autore klasikoak. Biblia osoari dagokionez, Testamentu Zaharretik, Donibane Lohitzuneko Pierre d'Urte apaiz anglikanoak *Genesis* eta *Exodus* eman zituen lapurteraz, 1894ean; Luis Luziano Bonaparte Printzeak esanda, Duvoisin kapitainak eta Aita Jose Antonio Uriarte bizkaitarrak *Vulgata* itzuli

zuten oso-osorik, hark lapurteraz eta honek gipuzkeraz. Duvoisin-en Kempis-en *Imitazionea* ere itzuli zuen. Printzeak Duvoisin-en *Bible edo Testament zahar eta berria* 1859an argitaratu zuen; Iriarterenetik, ordea, *Genesis, Exodus eta Leviticus* bakarrik argitaratu zituen. Testamentu berria Joannes Leizarraga protestanteak itzuli zuen 1571n, *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* deitua, Jeanne d'Albret erreginaren aginguz.

Katolikoek egindako lau Ebanjelioen lehen argitalpena 1855ekoa da, beren "imprimatur" eta guzti eginak. Itzulpen-lan honetan arituak genituen Harriet, Haraneder eta Haristoy apaizak Iparraldean, joan den mendean. Eta mende honetan, 1947an, Léon Léon errektoreak eman zituen lapurteraz lau Ebanjelioak. Hegoaldean, mende honetan, Orixek, jesuitetan zegoela, lau Ebanjelioak itzuli zituen, baina JBDan San Joanena bakarrik argitaratu zen 1921ean. Besteak, antza, galduak dira. Baina Aita Olabide izango da Biblia osoa euskaratuko duena, *Berria* 1931an eta *Zaharra eta Berria*, biak batera, 1958an.

Azalpen historiko honekin gauza bat azpimarratu nahi nuen, eta da itzulpengintzak baduela bere tradizioa euskal literaturan, eta tradizio hori literatura erlijiosoari atxekitzen zaiola gehienbat, euskaraz bideratu izan den garai horretako kultura funtsean erlijiosoan izan baita. Beste modu batera esanda: itzulpen-beharra pastoralgintzak justifikatzen

edo eskatzen zuen. Euskal protestante eta katolikoaren arteko lehia ere ikuspegi erlijioso horretatik begiratu behar da. Protestanteek badute beren Biblia euskaraz, katolikoek ez. Hau zen katolikoaren arrenkura.

Baina galdera beste hau da: euskarak, normaldua izan dadin, ba ote du itzulpenetara jo beharrik? Horra galdera. Modu honetara ez, baina zeharbidez bai, galdera Eusko Pizkundearen azken epealdian planteatu zen gure artean. Ordutik honakoa jorratu nahi nuke pixka bat gaurko arazoa hobeto uler dezagun.

---

### **Euskararen normalkuntzak zein neurritan ote du beharrezko itzulpengintza?**

---

Klero sekularrari dagokionez, Gasteizko Seminarioan *Nuestro Misionero/Gure mixiolaria* (1924-1929), *Gymnasium* (1927-1932) eta *Idearium* (1934) aldizkari elebidunak zeuden, gaztelaniaz gehiago euskaraz baino, Barandiaran eta Lekuonaren gidaritzapean bideratuak. Klero xehean, herri mailan, Bizkaian apaizek *Jaungoiko-Zale* hamabostekaria eta gero *Ekin* (1932) astekaria argitaratzen zuten bizkaieraz, Gabirel Manterola, Ibagutxi, Artzubiagak eta. Gipuzkoan, Zatarain, Ander Arzelusek eta, *Argia* astekaria (1921-1936) kaleratzen zuten. Klero erregularri dagokionez, kaputxinoek *Zeruko Argia* (1919) eta *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917) hilabetekariak ateratzen dituzte.

Argitalpen guztiok, ordea, herri-euskararen eginak daude, herri soilari zuzentzen bait zaizkio. Eta azken xede gisa, hein batean bederen, pastoral-gintzako printzipioetan oinarrituak zeuden, euskaltzaletasuna ere nahasian zihoala. Baina nagusi, xede erlijiosoa zen. Aski da plataforma horien sorburuko editorialak irakurtzea eta zenbaki desberdinen edukina aztertzea horretaz jabetzeko. Euskara landuaren beharra eta, honekin batera, itzulpen-lana beste kultur eremuetara ere zabaldu beharra, nik uste, Jesuiten Eskolari zor zaio. Eta Eskola hau aipatzean, besteak beste, izen hauek eman nahi nituzke: Orixe, Zaitegi, Andima, P. Etxeberria, Gaizka Barandiaran, gidari Olabide izaki. Honekin ez dut esan nahi guztiok euskara-eredu bera egin zutenik. Ez horrelakorik, guztiok bait dakigu, adibide simple bat ekartzeko, Olabide eta Orixe elkarrengandik oso urrun daudela. Baina autore hauek puntu honetan ados datoz: alegia, hizkuntza nazionalak oro, kultura landura heltzeko, obra klasikoekin harremanetan jarri izan direla eta euskarak, beste hizkuntza modernoek egin duten bide bera egin nahi badu, ez daukala klasikoetan eredu diren obrak beretu beste erremediorik. Hara hor nola planteatzen den autore klasikoak itzuli beharra. Pedagogia jesuitikoarentzat, dakigunez, eredu hori Antzinateko kultura greko-latinoa zen eta hango autoreak itzultzeraz jo zuten. Itzulpen-lanetan leher zorian ari izan dira Eskola honetakoak, esango nuke berezko lanetan baino areago zenbaitetan. Andimak Virgilio-ren *Unai-kantak* eta *Alor-kantak* itzuli

zituen, Gaizka Barandiaranek Homero-ren *Ilias*-ena, Zaitegik Platon-en hainbat lan, Olabidek *Itun zar eta berria*, Orixek Ebanjelioak, *Urte guziko Meza-Bezperak*, *Salmutegia*, *Mireio*, *Tormes'ko itsu-mutilla*, *Benito Gurenaren erregela*, etab. *Eusko-Gogoa*-n itzulpenen portzentaia oso garaia da. Datuak beste nonbait ditut.

Itzulpenek munta handia hartzen dute 1929-1931 epealdian. Orixek *Mireio* eta *Tormes'ko itsu-mutilla* argitaratzen ditu; Olabidek, berriz, *Itun berria*. Baina bada beste gertakari bat aski esanguratsua, 1928an ematen dena: hots, Sanferminak direla eta, Iruñean Literatur Sarien artean itzulpen-saila izenekoa eraikitzen dela. Orduan itzulgaia hauze izan zen: Cervantes-en *Don Quijote de la Mancha*-tik IX. atala itzultzea. Arrakasta handia. Lizardik ere aurkeztu zuen bere lana, baina Orixek eraman zuen saria.

Beraz, gerraurreko Eusko Pizkundean, bi jarrera bezala aurkitzen dira euskal literaturan. Bata jadanik aipatu duguna da, goi-kulturaren bila doana, bereziki itzulpenen bidez, eta horretarako, euskara landua egitea duena helburu nagusizat.

Joera honetakoa da Jesuiten Eskola. Hemen kultismoa nagusi, gutxiengoa du lehenesten. Besteak herri-literatura landu nahiago du, herri xeheari helduko zaion poesia nahiz bertsoa, bertsolariek egin ohi duten hizkuntza errazean egina eta herri-estetikan oinarritua. Orixeri eskatzen zaion poema nazionalak ere jite horretakoa

behar zuen izan: arras herritarra, folklorea oinarritua, *Kalevala* eta *Mireio*-ren antzera. Joera hau populista deitzen da eta eskola honetan kokatu beharko lirateke, besteak beste, Lekuona, Jaurtakol eta, Aitzol gidari dela.

Harez gero, itzulpengintzak euskal literaturaren garapenean izan dezakeen garrantziaz, eztabaidarik sortu da. Koldo Mitxelena 1960an esaten zuenez, “ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baizik” (*Egan*, 1960).

Baina Mitxelena bere buruarekiko kontraesanean jautsi zen, zeren bere ikerlanak (berezko obrak) zergatik argitaratzen zituen gaztelaniaz galdegintza zitaionean, gai teknikoak euskaraz lantzea ez zela egoki erantzun bait zuen. Sorkuntza literaturara mugatzen zuen. Krutwigek aldiz, 1962an, euskara indartzeko askoz garrantzitsuago zeritzon hizkuntza tekniko-zientifikoa lantzeari literatura lehenesteari baino: “Okzitaniako hizkuntza kultur modernoaren hizkuntz bat dentz iujatzeko Mistralek baino gehiago teknikalariek eta natur-iakintzalariek egin dezakete” (*Egan*, 1962). Gaur egun, bi joerak hortxe daude, ez dakit nik etsaigoan ala anaiarteko giroan, baina hortxe bakoitza bere trintxeretan: batetik, literatura soilean dihardutenak (*Pott Banda* eta, oro har, literaturan murgilduak dauden talde desberdinak) eta, bestetik, hizkuntza tekniko-zientifikoaren finkapenean ari direnak (UZEI, Elhuyar, UEU, etab.). Badirudi, hainbeste aldendu bait dira

bi praxiok, euskal literatura lantzen duten bakarrak literatura huts-garbian ari direnak direla. Eta hala ote? Ez ote dago literaturarik hizkuntza jantzi eta ikasian ere? Edota, areago, euskara landuan dago, egon, literatura miliz-kagarria eta ez hainbeste edo, agian uste baino guxiago, fikzio hutsean eraikitzen den literatura horretan? Zalantza handiak ditut puntu honetan. Baina natorren itzulpengintzara.

Itzulpenak beharrezko ditugula, nik ez dut zalantzarik egiten. Nola demondre egingo dugu Filosofia, Aristotele, Platon, Hegel, Marx, etab. euskaratzen ez baditugu, itzultzeko gauza ez bagara? Eta nola demondre normalduko dugu euskara, kultura modernoa, garaikidea, beste hizkuntza batetik hartzera kondenatuak baldin bagaude? Nik bederen ez dut pentsatzen euskarazko Unibertsitatek gabeko euskal kulturarik. Euskal kultura ez da posible kulturaren goi-maila hori gabe.

Demagun, bada, itzulpenak beharrezko direla bai literaturan bai gai teknikoetan. Guri, irakaskuntzan ari garenez, pentsalariak interesatzen zaizkigu. Baina itzulpenetan zeintzu erizpide segitu behar dira? Honekin bigarren puntura nator.

---

### Itzulpen-erizpideak

---

Hemen ere erizpideak kontrajarriak dauzkagu aspalditxotik. Lizardik, Orixeren *Tormes'ko itsu-mutilla* itzulpenaz bere eritzia ematerakoan, hiru arau aipatu zituen: “concisión,

división, e impresión” (*Kazetari-lanak*, Erein, Donostia, 1987, 235).

a) Lehen araua, zehaztasuna da. Itzuli-mintzulika ibili gabe, esan nahi dena zehatz eta zuzen esan behar da: “Esta noble concisión que trasciende a la lengua primitiva, es gran cualidad de todo traductor, y de un modo especial en el vasco, siempre que no obtenga a costa de escamotear trozos o matices del original” (ibid., 236).

b) Esaldi laburrak egitea, luzean esanahiaren haria galtzen bait da: “Hay todavía escritores que se empeñan en escribir así en euskera, lo que no presenta ninguna ventaja, pues ni es fácil, ni es claro, ni, por añadidura, está de moda en la literatura actual” (ibid., 236). Orixe honetan maisu. Axular, alderantziz, esaldi luzeen eredu izango litzateke.

c) Hirugarren araua, “impresión” deitua, itzulpen askea egitea da, sorburuko hizkuntzako esaerek hala behartzen edo eskatzen dutenean: “Esta, dentro de honrados límites, es preciso siempre al traducir, cuando se trate de frases y modismos o expresiones cuya versión literal resultaría retorcida, artificial y oscura” (ibid., 236). Honaino Lizardi 1929an.

Olabideren *Itun zar eta berria* itzulpen-lan erraldoia argitaratu zenean, 1959an, sekula ez bezala agertu ziren kontrajarriak euskaltzaleen eritziak. Oro har, *Euzko-Gogoa*-k, hari zenbaki monografikoa eskainiz, gogotik goraiatu zuen haren lana; *Egan*-ek, alderantziz. Lafitte-k

Olabideren euskara idorra baino Léon Léon-en gozo eta zukutsua nahiago zuen. Irigarai, orobat, Duvoisin-en euskara herritarra miresten zuen. Baina kritikarik zorrotzeta, eta landuena noski, Mitxelenak egin zuen, esanez itzulpen hura, euskara aldetik, funtsean esperimentalala eta arkaikoa zela. Jesuiten Eskolari orduan ematen zaio azken errematea. Orixek, ordea, defendatu egiten du Olabide, alde aurretik onartuz haren euskarak herri-kutsu askorik ez duela. Baina, beste itzultzaile guztien gainera, honako bi kualitate hauengatik miresten du eta aupatzen: a) itzulpenean zehatza delako, hots, esanahia zuzen interpretatzen dakielako, eta b) esaldi bihurri eta zailak, batere puskatu gabe, argi eta maisuki itzultzen dituelako. Eta honen adibidetzat, ezaguna den San Pauloren Gutunetako pasarte bat ekartzen du, *Euzko-Gogoa*-ko zenbaki monografiko horretan datorrena.

Nik uste dut gaur egun dauzkagun arazoak funtsean planteatuta daudela aipatu ditudan kasu hauetan: zehaztasuna, argitasuna, erraztasuna, gozotasuna... Itzulpen on bati kualitate asko eskatzen zaizkio. Akatsak aipatzekotan, anbiguitasuna eta polimesia lirateke alboratu beharrekoak.

Saussure-k uste zuen, hizkuntza bakoitzak bere egitura berezia duela eta, ez zela posible itzultzea hizkuntza batetik bestera. Gaur egun inork gutxik sostengatzen du tesi hau. Modu batera nahiz bestera, dena da itzulgarri. Arazoa da itzulpen itxurosoa nola egin, nahiz eta itzulpenak beti zerbait galduko duen jatorrizkotik. Nida-k

dioenez, inork ez du zalantzan jartzen, itzulpenak esanahia zerbait galtzea edo jatorrizkoa nolabait desitxuratzea suposatzen ez duenik gutxi-asko. Azken batean, edozein hizkuntzatan komunikazio orori gertatzen zaiona da hori. Galera hori minimora eraistean datza itzultzailearen helburu praktikoa, eta ez jatorrizkoa hobetzean; hizkuntza hartzailean jatorrizkoaren ahalik eta baliokide hurbilena birsortzea du eginginkun itzultzaileak.

Bi itzulpen-mota daude:

a) Bata zuzeneko ordezkapen-metodoa. Honen arabera, sorburuko hizkuntzatik hizkuntza hartzailean inolako bitartekorik gabe pasatzen gara mezu baliokideak ematera. Horretarako arau jakin batzuek ezartzen dira, hizkuntza bien arteko egitura sintaktikoak eta semantikoak parekatu ahal izateko. Metodo hau ez da batere praktikoa, zeren, jatorriz oso hurbil ez dauden hizkuntzetan, korrespondentziako erregelak oso ugariak eta nahasiak bait dira.

b) Zeharkako ordezkapen-metodoa. Metodo honek prozedura landuagoa eskatzen du eta hemen leku berezia hartzen dute analisi sintaktikoen, gramatikalek eta semantikoen.

Gai hauetaz, uste dudanez, aurretik mintzatuak izango dira beste egunetan eta ez noa ezer esatera. Dena dela, itzultzaile-lana egiazki lan zaila dela esan nahi nuke, hizkuntzaren erabileran trebetasun handia eskatzen duena. Teknika asko erabiltzea eskatzen du, segun eta zein testuren aurrean aurkitzen zaren: maileguak

(futbola, nylon), kalkoak (week-end = aste-bukaera), itzulpen literala (aldaketa gramatikal eta idiomatiko zuzena, bereziki elkarregandik hurbil dauden hizkuntzetan), transposizioa (diskurtsuaren zati bat beste bategatik ordezkatzeko denean, hala nola: afaltzera gindoazenean, afaltzerakoan), modulazioa (mezuaren baitan egiten den aldakuntza, hala nola: no es fácil saber dónde vive = badu neke non bizi den jakiteak), baliokidetzak (modismotan bereziki, hala nola: las pasó moradas = gorriak ikusi zituen), egokitzapena (XH-n ez badago SH-ko mezurik, hala nola: cymbale qui retintit = txilin burrunbari, Orixek)... Abilezia handia eskatzen du, beraz.

---

### **UBI testurako itzulpenez zerbait**

---

Itzulpenak orotara hartuta, ohar hauek egingo nituzke:

Lehenik, oso maila desberdinetako itzulpenak daude.

Batzu aski ulergaitzak dira, gramatika-akatsak dituztenak, joskera bihurria dutenak. Normalean testua hitzez hitz itzuli nahi izan denean gertatu da hori. Sorburuko hizkuntzan esaldia zenbat luze, hainbat luze xede-hizkuntzan. Hori izan da jokabidea. Nola eta hizkuntza oso ondo menderatzen ez den eta itzulpen-baliabideak oro maisuki erabiltzen, itzulpen literarioa porrotera kondenatua dago. Oso zaila da teknika honekin Kant, Descartes eta horrelakoak itzultzea. Eta hemen esango nuke, itzultzaile on izateko ez



dela aski gramatika-arauak gutxi-asko jakitea, alfabetakuntz ikastaroak egitea, baizik eta beharrezko dela lehenik idazle izatea.

Beste batzu normalean ulergarriak dira, joskera garbikoak, baina, gramatika nahiz lexikoaren aldetik, zuzentzekorik dexente dutenak. Hauetan nahikoa garbi nabari da, nahiz eta idazle sena izan, itzulpen tekniko-zientifikoetan trebatu gabe daudela eta ez dituztela segitzen gramatika-arau uniformatzaileak. Eta hemen alderantziz esango nuke: alegia, ez dela nahikoa idazle-sena izatea, baizik eta itzulpen tekniko-zientifikoak literarioa soilki ez den gaitasuna edo prestakuntza eskatzen duela, alfabetakuntza teknikoa deitzen dena.

Bigarrenik, lan gutxi dira, –baina badira, hala ere–, belarriari gozotasun osoa ematen diotenak eta atseginez irakurtzen direnak. Lan hauetan idazlea eta itzultzaile trebatua, biak kausitzen ditut.

Hirugarrenik, salbuespen bat edo beste, ohartu nahiz UZEIko Filosofi Hiztegiari ez zaiola kasu handirik egiten. Ezin dut ulertu zergatik. Izan ere, hiztegi hori ona ala txarra izango da, ez dakit; baina badakit urte askotako lana dagoela hor eta Filosofian dabilen eta Filosofiaz idazten duen talde batek eginga dela. Erabat ados nago norberak bere erabakiak hartzea, baina horretarako arrazoiak daudenean. Lexikoaren aldetik, oro har, sekulako anarkia dago. Horrela ezin da aurrerapausorik eman zehaztasunean eta uniformetasunean.

Laugarrenik, aurrera begira, aholku hau ematera ausartuko nintzateke. Itzultzailearen trebeziak hainbesterako ematen ez badu, hobe da esaldia zatitu eta mezua zehaztasunez eta argi ematen saiatzea, erraz ulertzeko moduan. Esaldi luzeak sarritan berekin du iluntasuna, nola itzultzailea ez den Axularren pareko. Gainera, autore bakoitzak bere garaiko estiloaren arabera idazten du: honek estilo barrokoan, hark semantika korapilatsu eta ilunean, beste honek esaldi luze eta aldrebe-setan, harako hark hitz-jokoak erabiliz... Horietako bakoitzaren estiloari moldatuz itzultzen enpeinatu nahi izatea, gaurko estilistikari kasurik ez egitea da eta, zentzu honetan, gaurko irakurlearen –kasu honetan ikaslearen– ulermena aintzakotzat ez hartzea. Arazoa konpontzeko bideetako bat, hau izan daitekeela uste dut: sorburuko testutik edukin semantikoa hartu eta xede-hizkuntzan beroni dagokion egitura gramatikala eta sintaktikoa aplikatu, ahal dela zalua, ez konplikatu. Horrela, alde batetik, mezua zehaztasunez jasoko litzateke –hauxe da, hain zuzen, itzulpen teknikoaren xede nagusietariko bat– eta, bestetik, irakurle ikasleari eskurakor egingo zaio testu itzulia. Zailtasunik baldin badu, jatorrizko testuari dariona izango da. Hori ezin da alboratu, pentsamenduaren goitasunak, abstrazioak, berez bait du iluntasun-errainua.

Bostgarrenik, nonbait irakurri dut ez ote den Filosofian ere herri-euskara xehea erabili behar, Mikel Atxaga edo Baserri batek erabiltzen dutenaren antzekoa. Hizkuntza periodistikoa edo horrelako zerbait. Horrela pentsatzea



herri-hizkuntzaren eta hizkuntza lan-  
duaren maila espezifikoak erabat  
nahastea da. Gaur egun onartua dago  
hizkuntz maila bat baino gehiago  
aurkitzen dela gizarte-bizitzan: arrunta,  
profesionala, espezializatua, etab., eta  
hauetako bakoitzak bere zeregina bete-  
tzen duela hizkuntza baten normal-  
kuntzan. Baserri bertsolari ona izango  
da, Mikel Atxaga kazetari ona izango  
den bezala. Ez dut dudatzen. Baina  
hortik esatea horien euskara-mota  
aplikatu beharko litzatekeela Filosofian,  
astakeria bat esatea dela iruditzen zait.

Seigarrenik, maileguei buruz, bi  
joera nagusi ezagutu dira euskal  
literaturan:

a) Orixeren eta orixezaleen eriz-  
pidea euskal harrobia ustiatzea izan  
zen, baieztatuz euskarak, berez (García  
Diego-k zioen “virtud germinativa”  
delakoari esker), bazuela aski gaitasun  
orokortasunerako eta kontzeptu abstrak-  
tuak adierazteko, albo-hizkuntzetara  
mailegu eske joan gabe. Gaitasun hori,  
batez ere, hitz-elkarketan eta erator-  
penean kausitzen zuten. *Euzko-Gogoa*  
izan bide daiteke eskola horren adie-  
razle. Orixek, zehazki, ikuspegi horren  
arabera egin zituen *Estetika* eta  
*Metafisika*, osoki euskal gramatikaren  
arabera pentsatuz eta jokatzuz. Sintaxian  
Azkue eta Altube zituen gidari; hitz-  
elkarketa eta eratorpenari buruzko  
teorian, berriz, Campion. Baina bide  
horri ekin ziotenen artean, ordea, Orixe  
bakarra izan da Orixe, beste gehienak  
orixezale besterik ez bait dira izan.  
Horregatik egurtu zituen hainbeste  
Koldo Mitxelenak Gaizka Barandiaran  
eta Olabide.

Euskaratik abiatuz euskaraz Filo-  
safia egitea, hizkuntza batek bere  
Filosofia egitea adina izango litzateke,  
baldin egia bada Filosofiak Gramati-  
kan duela bere oinarria.

b) Beste joera batek, hauen artean  
batez ere Krutwig eta Villasantek bere  
garaian (1950), terminologia uniber-  
tsala proposatu zuten, sostengatuz  
Europako kulturak beretu dituen hitz  
unibertsalak euskarak mailegatu behar  
dituela. Gehienbat erizpie hau nagusitu  
izan da, nik esango nuke, baita  
terminologian espezializatua dagoen  
UZEIn ere. Nolanahi ere, mailegu-  
-kontuan, abanikoa dexente zabaltzen  
da. Seguraski oraindik behar adina  
ustiatu gabe dago Orixek zioen “euskal  
harrobia” eta, bestetik, zehaztasunaren  
izenean errazkeriak edota ezjakintasun-  
ak lizentzia gehiegi hartu ditu maile-  
guen etxeratzean. Erizpidea hau izan  
daiteke: ahal dela euskal harrobira jo;  
ezin denean, maileguetara, bereziki  
beste hizkuntzek ere hala egiten  
dutenean.

Donostian, 1990-07-18an.

*Oharra:* Lerro hauek UEUko hitzaldi  
baterako apunte gisa prestatu  
nituen eta ez dute, beraz,  
gehiagoko asmorik.

Berrikitan lagun baten esku-  
etan ikusi dut Filosofi testua  
txukun eta dotore argitaratua, bere  
aparatu krikitoarekin eta guzti.  
Esan didatenez, esku leun eta  
arduratsuek orraztua omen dator.  
Hala bedi. Guztion zorionerako.